

Otondoa eta sugeria

BERROGEITIK GORA gaitz sendatzeko belarra omen da otondo-belarra, *Stachys officinalis*. Lakoizketak sugeria eta betuna izenak ere jasok ditu. Sugeria, suge sugandila eta antzekoek sortutako gaitzak sendatzeko ere ona delako deituko zaio, apika. Betunak, Mediterraneoaren inguruko hizkuntzetan landare hau izendatzeko erabiltzen duten “betonika” izango du iturri, noski edo...

Otondo-belarra, otea edo otondoaren (*Ulex sp.*) lagun izatetik ote datorkio? Biek gustuko dute lur azido sili-zeduna. Ogi papurrari otondo ere deitzen zaiola irakurri dut. Lan egin nahi duen hizkuntzalariarentzat: ogi labea berotzeko otea bezalakorik ez omen dago; otondo-belarra otearekin batera etorriko zen; ogi papurra otondoa... Eta segizioan, otondo-belarra sendabelar onenetakotzat hartua da, milaka urteko eskola osatuta dago berarekin; “berokia saldu eta otondo-belarra erosi” diote italiarrek. Beste erabilera xeble ugari ere badu: tabakoa lurrintzeko bere hostoa nahasten



Otondo-belarra, *Stachys officinalis*.

zitzaion, sorginkerietatik eta mamuetatik babesteko eta amesgaiztoak uxatzeko iduneko jartzen zen, buruko estutasunak askatzeko, lehortutako hosto ehoen hautsarekin doministikua eragiten da, infusio freskagarri gisa hartzeko egokia, jangarria, lorik ez egiteko oherakoan zukutu eta edaten zuten. Sorginengandik eta deabruengandik babesteko baratzeetan eta komentuen, baselizen eta

ten duela dio. Munillarengana ez hurbiltzeagatik, hori sinestu nahiago nik.

Gaitz ugarirentzako sendabidea. Garai bateko toki mitikoe-tan aldatu eta zaindua, sorginkerien, deabruen, amesgaiztoen aurkaria. Loarentzako erremedioa. Buruko minaren aringarria. Lepoan eramateko moduko laguna. Ore bereko opilak, otondo-belarrarenak. ■

[f]arina

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea) · Vitoria-Gasteiz ARABA
☎ 945 06 95 81 · info@farinarestaurante.com

Etxekoa,
ekologikoa...

